GOBERNU BATZARRA – JUNTA DE GOBIERNO

A

Nº…………………ZKA.

**2019/02/27**

Gobernu Batzarraren agirietako gordetako paper berezia – Papel reservado para las actas de la sesiones de la Junta de Gobierno

# GOBERNU BATZARRAK 2019KO OTSAILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO BATZARRAREN GB02-19. AKTAREN

# ACTA nº GB02-19 DE LA SESIÓN ORDINARIA DE LA JUNTA DE GOBIERNO 27 DE FEBRERO DE 2019

**BERTARATU DIRANAK:**

**PRESIDENTEA:**
Miguel Angel Etxebarria Etxebarria jna.

**MAHAIKIDEAK:**
Jon Monasterio jna.
Alberto Intxaurraga jna.
Nekane Intxaurtza and.
Saioa Elejabarrieta and.

**BAIT. IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA:**
Maren Iturbe Llorente jna.

Igorren, ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAren Egoitzan, bi mila eta hemeretziko otsailaren hogeita zazpian, goizeko zortzi eta erdiak diranean, ohiko Gobernu Batzarra batu da eta goian adierazo diran jaun-andreak bertaratu dira; ez dira bertaratu ostera, García, Sorriketa, Anzola, Pagola, Gurutze Etxebarria jaunak/andreak; Presidentea Miguel Angel Etxebarria Etxebarria jauna izan da eta bait. Idazkari-Kontuhartzailea, barriz, Maren Iturbe Llorente jauna; hori dana, egiteko asmoz deitu dan batzarra lehenengo deialdian egitearren egin dabe.

**ASISTENTES:**

**PRESIDENTE:**
D. Miguel Angel Etxebarria Etxebarria

**VOCALES:**
D. Jon Monasterio
D. Alberto Intxaurraga
Dña. Nekane Intxaurtza
Dña. Saioa Elejabarrieta

**SECRETARIO-INTERVENTOR ACCTAL:**
D. Maren Iturbe Llorente

En Igorre, en la Sede de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA a veintisiete de febrero de dos mil diecinueve, siendo las ocho treinta horas, se constituyó en sesión ordinaria ésta Junta de Gobierno con los señores que arriba se citan, no acudiieron los Sres./Sras. García, Sorriketa, Anzola, Pagola, Gurutze Etxebarria; bajo la Presidencia de D. Miguel Angel Etxebarria Etxebarria asistidos todos ellos por el Secretario-Interventor acctal. D. Maren Iturbe Llorente, todo ello al objeto de celebrar en primera convocatoria la sesión convocada al efecto.

## 1.- GAIA: ERAKUNDEAREN ADIERAZPENA MARTXOARI 8ARI, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZ

"Jarraian Presidente jaunak hitz egin du eta Gobernu Batzordeko mahaikideei jakinarazi die ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAK, martxoaren 8an ospatuko den "Emakumeen Nazioarteko Eguna"-kin bat, erakundearen ondoko

## 1º.- ASUNTO: DECLARACIÓN INSTITUCIONAL RELATIVA AL DÍA 8 DE MARZO – DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES.

"Acto seguido toma la palabra el Sr. Presidente quien informa a los Vocales de la Junta de Gobierno que ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA que coincidiendo con la celebración el próximo día 8 de marzo del "Día Internacional de las Mujeres", propone

Gobernu Batzarraren agirietako gordetako paper berezia – Papel reservado para las actas de la sesiones de la Junta de Gobierno

adierazpena onestea proposatu duela:

***BIZITZAK ERDIGUNERA!***

*Gizarteak mezu argia jaso zuen 2018an, Mugimendu feministak Martxoaren 8rako egindako emakumeen lan-etenaldi deialdiari eman zitzaion erantzunaren aurrean: kaleak bete ziren eta elkarlan-sareak sustatu, emakumeek beren aukera-berdintasuna erreklamatzeko abian jarrita zuten borrokak atzera bueltarik ez zuela.*

*2019rako ere indarrean jarraitzen dute emakumeen aldarrikapenek, **"Bizitzak Erdigunera!"** lelopean. Aurten ere, emakumeen bizitzak jasangarri, libre, anitz eta duinak izateko eskaerak kaleak hartuko ditu. Beharrezkoa da emakumeen lan-prekarietatea eta pobrezia salatzea, indarkeria matxista guztien aurka egitea, eta bazterkeria eta arrazakeriari uko egitea.*

*Gizarte honen barnean emakumeengan eragiten duten zapalkuntza eta diskriminazio-sistema guztiak desagerrarazteko lanean gure Mankomunitatetik ere Martxoaren 8an Emakumeok planto egitea eta Bizitzak Erdigunean jartzea aldarrikatuko dugu.*

*Eta zer esan nahi du azken horrek, zehazki?*

*Gure bizitzak sostengatu eta beroriek erdigunean jartzeko ordainduak eta ordaindugabeak diren lan guztiak beharrezkoak diren heinean, nagusiki emakumeoi egokitu zaigun **zaintza-lan** hori guztia eremu pribatu horretatik atera behar dugula; hau da, **zaintza eta etxeko lanen ardura sozializatu behar dela** eta gizonek eta erakunde publikoek ardura zuzenak hartu behar dituztela.*

***Denboraren erabilera orekatzea erabat estrategikoa eta gakoa da** berdintasun-politikak eraginkorragoak izan daitezen. **Europako Berdintasun Adierazleak** kontuan hartzen dituen esparruetatik Denborakoan eragiteak, Boterea, Ezagutza, Dirua eta Enpleguetako domeinuetan eragitea ere badakar.*

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO Gobernu Batzarra arestian adierazi den

la aprobación de la siguiente declaración institucional:

***¡LAS VIDAS AL CENTRO!***

*En 2018 la sociedad recibió un mensaje claro ante la respuesta que se dio a los paros de mujeres convocados por el Movimiento Feminista el 8 de Marzo: se llenaron las calles y se impulsaron las redes de colaboración para expresar que la lucha iniciada por las mujeres para reclamar la igualdad de oportunidades no tiene vuelta atrás.*

*En 2019 siguen vigentes las reivindicaciones de las mujeres bajo el lema de **"¡Las vidas al Centro!".** Este año también tomará las calles la demanda de las mujeres para tener vidas sostenibles, libres, diversas y dignas. Es necesario denunciar la precariedad laboral y pobreza de las mujeres, luchar contra todas las formas de violencia machista y rechazar la exclusión y el racismo.*

*Desde nuestra Mancomunidad, trabajando para hacer desaparecer todos los sistemas de opresión y discriminación que afectan a las mujeres, también reclamaremos que las mujeres se planten y que se sitúen las Vidas en el Centro.*

*¿Y que implica esto exactamente?*

*En la medida en que todos los trabajos son necesarios para el sostenimiento de la vida, tanto los remunerados como los que no lo son, tenemos que sacar del espacio privado todo el trabajo de cuidados que nos toca mayoritaria a las mujeres; esto significa, que **hay que socializar la responsabilidad de trabajo doméstico y de cuidado**, y que los hombres así como las instituciones y entidades públicas tienen que asumir responsabilidad directa.*

***Resulta estratégico y clave equilibrar el uso del tiempo** para que las políticas de igualdad sean efectivas. Entre los ámbitos de referencia en los **Indicadores Europeos de Igualdad,** intervenir sobre el del Tiempo acarrea cambios en los dominios del Poder, el Conocimiento, el Dinero y el Empleo.*

La Junta de Gobierno de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, quedó enterada de todo lo anteriormente expuesto y tras un breve debate, tras ser sometido el

Gobernu Batzarraren agirietako gordetako paper berezia – Papel reservado para las actas de la sesiones de la Junta de Gobierno

horren guztiaren jakitun geratu da eta eztabaida labur baten ostean, AHO BATEZ hauxe erabaki da:

1.- Martxoaren 8an ospatuko den "Emakumeen Nazioarteko Egunarekin" bat AUMren Erakunde mailako Adierazpena onestea, AUMeko Presidentziak proposatu dituen termino horietan

2.- Arratiako Udalen Mankomunitateak ardura hartzen du berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko duten politika publikoak burutzeko.

3.- Arratiako Udalen Mankomunitateak ardura hartzen du zaintza-lanak bere politika publikoen erdigunean jartzeko.

4.- Arratiako Udalen Mankomunitateak, Mugimendu feministak deitutako greba dela eta, ardura hartzen du udaleko emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak emateko.

5.- Azkenik, herritarrak deitzen ditu Emakumeen Nazioarteko Egunagatik Mugimendu feministak Martxoaren 8an deitutako mobilizazioetan eta ekitaldi desberdinetan aktiboki parte hartzera.-"

asunto a votación por UNANIMIDAD de los Vocales presentes, acordó:

1º.- Aprobar la Declaración Institucional de AUM coincidiendo con la celebración el próximo día 8 de marzo del "Día Internacional de las Mujeres", en los términos propuestos por la Presidencia de AUM.

2º.- Arratiako Udalen Mankomunitatea asume la responsabilidad de llevar adelante políticas públicas que garanticen la igualdad real y efectiva.

3º.- Arratiako Udalen Mankomunitatea asume la responsabilidad de poner en el centro de sus políticas públicas las tareas de cuidado.

4º.- Arratiako Udalen Mankomunitatea, con motivo de la huelga convocada por el Movimiento Feminista asume la responsabilidad de facilitar el ejercicio del derecho a la huelga a las trabajadoras y electas municipales.

5º.- Al fin, hace un llamamiento a la ciudadanía para que participe activamente en las movilizaciones convocadas para el próximo 8 de marzo por el Movimiento Feminista con motivo del Día Internacional de las Mujeres.-"

**2.- GAIA: ETXEKO HONDAKIN ORGANIKOAK BILTZEKO EDUKIONTZIA (5. EDUKIONTZIA, PERTSONALIZATUA) EZARTZEKO ABENDUAREN 26KO 186/2018 FORU DEKRETUAN XEDATUTAKOAREN BABESPEAN EMANGO DIREN DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERAREN INFORMAZIOA.**

"Ondoren, Presidente jaunak hartu du hitza eta Gobernu Batzarreko kideei 186/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 26koak, Bizkaiko Foru Aldundiarenak, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak etxeko hondakinetatik zati organikoa (5. edukiontzi pertsonalizatua) gaika biltzeko edukiontziak ezar daitezen diru-laguntzak arautu eta horietarako

**2º.- ASUNTO: INFORMACIÓN DE LA SOLICITUD DE SUBVENCIÓN AL AMPARO DE LO DISPUESTO EN EL DECRETO FORAL 186/2018, DE 26 DE DICIEMBRE PARA LA IMPLANTACIÓN DEL CONTENEDOR DE RECOGIDA SELECTIVA DE LA FRACCIÓN ORGANICA DEL RESIDUO DOMÉSTICO (5º CONTENEDOR PERSONALIZADO)**

"Acto seguido toma la palabra el Sr. Presidente quien informa a los Vocales de la Junta de Gobierno de lo dispuesto en el Decreto Foral nº 186/2018, de 26 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones que se conceden por el Departamento de Sostenibilidad y Medio

2019. urtean deialdia egiten duenak (2019/01/08ko 5. BAO), xedatutakoaren berri eman die.

OINARRIA.- Arratiako Udalen Mankomunitateko Iraunkortasun Arloak burutu ondoren, "2019. urtean 5. edukiontziaren bitartez materia organikoaren gaikako bilketa hobetzeko proiektua"-ri dagokion txostena eta aurrekontua ikusi eta aztertuta. Guztira 31.125,00 euroko kostuz, BEZa barne,

OINARRIA.- Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari hurrengo proiektua gauzatzeko diru-laguntza egindako eskaerea: "2019. urtean 5. edukiontziaren bitartez materia organikoaren gaikako bilketa hobetzea". Hori 186/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 26koak, Bizkaiko Foru Aldundiarenak, Ingurumen Foru Sailak etxeko hondakinetatik zati organikoa (5. edukiontzi pertsonalizatua) gaika biltzeko edukiontziak ezar daitezen diru-laguntzak arautu eta horietarako 2019. urtean deialdia egiten duenak, xedatutakoarekin bat egingo da.

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO Gobernu Batzarra arestian adierazitako guztiaz jakinaren gainean gelditu da.-"

Natural para la implantación del contenedor de recogida selectiva de la fracción orgánica del residuo doméstico (5.º contenedor personalizado) durante el año 2019, publicado en el B.O.B. nº 5 de fecha 08/01/2019

VISTA y analizada la Memoria y el presupuesto del "Proyecto de Mejora del Servicio de Recogida Selectiva de la Materia orgánica mediante el 5º contenedor para el año 2019", elaborada desde el Area de Sostenibilidad de AUM, con un coste total de 31.125,00 euros, I.V.A. incluído.

VISTA la solicitud de subvención al Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia, para la realización del siguiente proyecto: "Mejora del Servicio de Recogida Selectiva de la Materia orgánica mediante el 5º contenedor para el año 2019" de conformidad con lo dispuesto en el Decreto Foral nº 186/2018, de 26 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones que se conceden para la implantación del contenedor de recogida selectiva de la fracción orgánica del residuo doméstico (5.º contenedor personalizado) durante el año 2019

La Junta de Gobierno de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, quedó debidamente enterada de todo lo anteriormente expuesto.-"

## 3.- GAIA: BI LANPOSTU BETETZEKO HAUTATZE-PROZESUAREN KAUTELAZKO ETENALDIAREN GAINEKO INFORMAZIOA.

"OINARRIA: Aztertu da AUMko Presidentziak otsailaren 15ean 3/2019 zk. Dekretua, literalki dioela:

AURREKARIAK

IKUSI DA AUMko Osoko Bilerak, 2018ko abenduaren 26an egindako ohiko bileran, gai-zerrendako 5. puntuan onetsi zuela Arratiako Udalen Mankomunitatearen

## 3º.- ASUNTO: INFORMACIÓN SOBRE LA SUSPENSIÓN CAUTELAR DEL PROCESO SELECTIVO PARA LA PROVISIÓN DE DOS PUESTOS DE TRABAJO.

"VISTO el Decreto nº 3/2019 de 15 de febrero de la Presidencia de AUM, que literalmente dice:

ANTECEDENTES

VISTO que la Junta Plenaria de AUM en sesión ordinaria celebrada con fecha 26 de diciembre de 2018, en el Punto 5º del Orden del Día procedió a la aprobación de

Gobernu Batzarraren agirietako gordetako paper berezia – Papel reservado para las actas de la sesiones de la Junta de Gobierno

2019. urterako lan-eskaintza publikoa.

IKUSI DA AUMko Osoko Bilerak, 2018ko abenduaren 26an egindako ohiko bileran, gai-zerrendako 6. puntuan, halaber, onetsi zituela Arratiako Egoitza-Herri Erakunde Autonomoko zuzendaria-kudeatzailearen lanpostu bat (A-1 taldea) eta mantentze-lanetako ofizialaren lanpostu bat (C-1 taldea) barne-sustapen bertikalaren bitartez emateko hautaketa-prozedurak arautzeko oinarriak.

IKUSI DIRA bideratutako prozedurari buruz sortu diren zalantzak, langileen ordezkariekin negoziaziorik egin ez izanari eta onesteko prozesuan hizkuntza-eskakizunen profilak esleitzeari dagokionez, bai 2019. urteko Arratiako Udalen Mankomunitatearen lan-eskaintza publikoari zein hautaketa-prozeduraren oinarriei begira.

IKUSI DA Presidentziak Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eskatu diola sortuko diren lanpostu berrietan euskarazko hizkuntza-eskakizunak esleitzeari buruzko txosten bat.

IKUSI DA Presidentziak AUMko Idazkaritza-Kontu-hartzailetzari eskatu diola txosten juridiko bat egiteko barne-sustapeneko sistemaren bitartez lan-eskaintza publikoa eta lanpostuak barne-sustapeneko sistemaren bitartez hornitzeko deialdiaren oinarriak onesteko.

IKUSI DA ireki dela lanpostuak betetzeko deialdiaren hautaketa-prozeduran parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

IKUSI DA azaroaren 7ko 16/1997 Legearen bitartez aldatutako Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 97. artikuluko 5. eta 6. puntuetan xedatutakoa.

IKUSI DA azaroaren 7ko 16/1997 Legearen bitartez aldatutako Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 102. artikuluko 1. puntuan xedatutakoa.

la Oferta de empleo público de Arratiako Udalen Mankomunitatea para el año 2019

VISTO que la Junta Plenaria de AUM en sesión ordinaria celebrada con fecha 26 de diciembre de 2018, en el Punto 6º del Orden del Día, procedió igualmente a la aprobación de las Bases por la que se regulan los procedimientos selectivos por promoción interna vertical de una plaza de Director/a-Gerente (Grupo A-1) y una plaza de Oficial de Mantenimiento (Grupo C-1) de "Arratiako Egoitza H.E.A."

VISTAS las dudas que han surgido respecto al procedimiento seguido en lo relativo a la falta de negociación con los representantes del personal y de asignación de los perfiles lingüísticos en el proceso de aprobación, tanto de la Oferta de empleo público de Arratiako Udalen Mankomunitatea del año 2019, como de las Bases del proceso de selección.

VISTO que desde ésta Presidencia se ha solicitado a la Viceconsejería de Política Lingúistica del Gobierno Vasco, un Informe relativo a la asignación de los perfiles lingüísticos de Euskera a las nuevas plazas a crear.

VISTO que desde ésta Presidencia se ha solicitado a la Secretaría-Intervención de AUM la elaboración de un Informe Jurídico relativo el procedimiento llevado a cabo para la aprobación de la Oferta de empleo público y de las Bases de la convocatoria para la provisión del personal mediante el sistema de promoción interna.

VISTO que se ha iniciado el plazo de presentación de instancias solicitando poder participar en el proceso de selección convocado para la provisión de personal.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

VISTO lo dispuesto en el artículo 97º – Puntos 5 y 6 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, modificada por la Ley 16/1997, de 7 de noviembre.

VISTO lo dispuesto en el artículo 102º, Punto 1 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, modificada por la Ley 16/1997, de 7 de noviembre.

Gobernu Batzarraren agirietako gordetako paper berezia – Papel reservado para las actas de la sesiones de la Junta de Gobierno

**A**

## GOBERNU BATZARRA – JUNTA DE GOBIERNO

Nº………………..ZKA.

**2019/02/27**

Gobernu Batzarraren agirietako gordetako paper berezia – Papel reservado para las actas de la sesiones de la Junta de Gobierno

IKUSI DA Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautu duen apirilaren 15eko 86/1997 Legearen 23., 24., 29., 42. eta 47. artikuluetan xedatutakoa.

IKUSI DA Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37. artikulua.

Hori guztia ikusita, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.- Gaurtik aurrera, 2019ko otsailaren 15a, kautelaz etetea Arratiako Egoitza-Herri Erakunde Autonomoko zuzendaria-kudeatzailearen lanpostu bat (A-1 sailkapen-taldea) eta mantentze-lanetako ofizialaren lanpostu bat (C-1 taldea) barne-sustapen sistemaren bitartez betetzeko izapidetzen ari diren prozedura.

2. artikulua.- Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari aipatutako lanpostuen hizkuntza-eskakizunaren eta derrigortasun-dataren inguruan eskatutako txostena jasotzean eta AUMko Idazkaritza-Kontu-hartzailetzak txosten juridikoa egin bezain laster, AUMko Negoziazio Mahai Orokorra deituko da. Bertan, AUMko alderdietako ordezkariak egongo dira, bai eta langileen ordezkariak ere. Hori guztia administrazio publikoan euskara erabiltzeari buruz eta administrazio publikoko lan-negoziazioari buruz indarrean dagoen legeria zorrotz bete dadin.

3. artikulua.- Hautaketa-prozeduran parte hartzeko orain arte aurkeztu dituzten eskabideak eta dokumentazioa erantsi dira, eta espedientean jasota geratuko dira. Gainera, administrazio-espedientea berriz abiarazi arte izango dute balioa.

4. artikulua.- Ebazpen honen berri ematea

VISTO lo dispuesto en los artículos 23º, 24º, 29º, 42º y 47º del Decreto 86/1997, de 15 de abril por el elque se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad autónomoa de Euskadi

VISTO el artículo 37º del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.

A la vista de lo anteriormente expuesto, por el presente:

DISPONGO:

Artículo 1º.- Suspender cautelarmente a partir del día de hoy 15 de febrero de 2019 el proceso de que se está tramitando para la provisión mediante el sistema de promoción interna de la cobertura de las de una (1) plaza de Director/a-Gerente (Grupo A-1) y de una (1) plaza de Oficial de Mantenimiento (Grupo C-1) de "Arratiako Egoitza H.E.A."

Artículo 2º.- Que en el momento en que se reciba el Informe solicitado a la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco, en lo relativo a la asignación a las citadas plazas del Perfil Lingüístico de euskera y la fecha de preceptividad, y se elabore un Informe Jurídico por parte de la Secretaría – Intervención de AUM, se procederá a convocar a la Mesa General de Negociación de AUM, la cual estará integrada por los representantes de los Grupos Políticos políticos de AUM y los/las representantes del personal, todo ello a fin de dar estrcito cumplimiento a la legislación vigente en materia del uso del euskera en la administración pública y de la negociación laboral en la administración pública.

Artículo 3º.- Que las instancias y la documentación anexa que hasta el momento hayan sido presentadas por personas solicitando poder participar en el proceso selectivo, quedarán integradas en el Expediente y tendrán validez tras la reanudación del expediente administrativo.

Artículo 4º.- Dése cuenta de la presente

Gobernu Batzarraren agirietako gordetako paper berezia – Papel reservado para las actas de la sesiones de la Junta de Gobierno

AUMko funtzionarioen ordezkariari, AUMko langile lan-kontratudunen ordezkariari eta AEHEAko langile lan-kontratudunen ordezkariari.-"

Orduan, Elejabarrieta batzarkide andreak hartu du hitza, eta esan du oposizioak aurretik ere ohartarazi ziela gaia aldeen arteko Negoziazio Mahai batean eztabaidatu beharra zegoela, eta AUMko Presidentziak ez zuela horren inguruko inolako neurririk hartu.

Beste alde batetik, Elejabarrieta andreak adierazi du, Eusko Jaurlritzari eskatutako txostenaren ondorioak aztertu ostean, AUMko gobernu-organoek aldez aurretik hartutako erabakia baliogabetu beharra zegoela, Legean ezarritakoarekin bat etorriz.

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA Gobernu Batzarra arestian adierazi denaren jakinaren gainean geratu da.-"

Resolución al Delegado de los Funcionarios/as de AUM, al Delegado del del Personal Laboral de AUM, y al / a la representante del Personal Laboral de AEHEA.-"

En éste momento toma la palabra la Vocal Sra. Elejabarrieta quien comenta el hecho de que desde la oposición ya se advirtió en anteriores ocasiones que se debería haber procedido a someter el presente asunto a debate en una Mesa de Negociación entre las partes y que la Presidencia de AUM no tomó ninguna medida al respecto.

Por otro lado, la Sra. Elejabarrieta comenta que tras el análisis de las conclusiones del Informe solicitado al Gobierno Vasco, se debería proceder a revocar el Acuerdo adoptado anteriormente por los Organos de Gobierno de AUM de conformidad con lo dispuesto en la Ley.

La Junta de Gobierno de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, quedó debidamente enterada de todo lo anteriormente expuesto.-"

## <u>4.- GAIA: "GAZTAROA-SARTU KOOP. ELKARTEA"K AURKEZTUTAKO IDAZKIAK. DIRU-LAGUNTZARI UKO EGITEKO.</u>

"OINARRIA: Aztertu da AUMko Presidentziak urtarrilaren 30ean 2/2019 zk. Dekretua, literalki dioela:

*"OINARRIA Lanbide-Euskal Enplegu Publikoko Zuzendari nagusiaren 2018ko ekainaren 13ko Ebazpenaren bidez enpleguaren arloko tokiko ekintzak 2018. urtean garatzeko laguntzen deialdia argitaratu zen, 2018ko ekainaren 20ko 118 zenbakidun EHAOn.*

*AURREKARIAK*

*<u>Lehena</u>: ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEko Gobernu Batzarrakerak, 2018ko urriaren 31an egindako ohiko bileran, gai-zerrendako 2. puntuan, AUMk enplegua sustatzeko norgehiagoka araudian ematen dituen diru-laguntzak adjudikatu zituela, 2018. urtean inklusiorako enpresei edo irabazi asmorik gabeko entitateei zuzenduta daudenak.*

## <u>4º.- ASUNTO: ESCRITOS PRESENTADOS POR "GAZTAROA – SARTU KOOP. ELKARTEA" DE RENUNCIA A SUBVENCIÓN.</u>

"VISTO el Decreto nº 2/2019 de 30 de enero de la Presidencia de AUM, que literalmente dice:

*" VISTA la Resolución de 13 de junio de 2018, del Director General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, publicó la convocatoria de ayudas para el desarrollo de acciones locales de empleo para el año 2018, publicada en el B.O.P.V. nº 118, de 20 de junio de 2018*

*ANTECEDENTES*

*<u>Primero:</u> La Junta de Gobierno de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, en sesión ordinaria celebrada con fecha 31 de octubre de 2018, en el Punto 2º del Orden del Día se procedió a la adjudicación a la de las subvenciones que concede AUM en régimen de concurrencia competitiva en materia de fomento del empleo, dirigidas a empresas de inserción o entidades sin*

*Bigarrena:* GAZTAROA SARTU KOOP ELKARTEA"ri (IFK: F48211080) 18.750,00 euroko diru-laguntza emango zaio 2018ko ekitaldian zehar enplegua sustatzeko ekintzak bultzatu eta sustatzeko proiektu bi (2) garatzeko. Hori guztia, norgehiagoka-erregimenaren bidezko diru-laguntzen deialdia arautzen duten Oinarrien arabera, eta honela banatuta:

- Gardentasuna 12.500,00 €
- Enplegurako Informazio-Zentroa 6.250,00 €

*Hirugarrena:* GAZTAROA – SARTU KOOPERATIBA ELKARTEAk bi idatzi aurkeztu zituen 2018-12-21ean eta 2019-01-30ean. Horien bitartez, emandako dirulaguntzari UKO EGITEN DIO.

*ZUZENBIDEKO OINARRIAK*

*Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 94. artikuluko 3. zenbakian ezarri da interesdunek administrazio-prozeduran atzera egiteko eta uko egiteko duten erregimena, eta zehaztu da Administrazioak bere horretan onartuko duela atzera egitea edo uko egitea, eta amaitutzat emango duela prozedura, salbu eta prozeduran hirugarren interesdun batzuk pertsonatuta badaude.*

*Hori guztia ikusita, hauxe*

*XEDATU DUT:*

*1. artikulua.-* Onartzea GAZTAROA – SARTU KOOPERATIBA ELKARTEAk (IFK: F48211080) aurkeztutako 18.750,00 euroko dirulaguntzaren uko egitea. Dirulaguntza ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEko Gobernu Batzarraren erabakiaren bitartez eman zen 2018ko urriaren 31n egindako ohiko bileran.

*2. artikulua.-* Adieraztea horretarako izapidetutako administrazio-espedientearen prozedura amaitu dela, eta artxibatzea."

Une honetan Elejabarrieta batzarkide

*ánimo de lucro para el año 2018.*

*Segundo :* A la vista de la subvención concedida a "GAZTAROA – SARTU KOOPERATIBA ELKARTEA" C.I.F.: F48211080 por un importe de 18.750,00 euros para el desarrollo de dos (2) proyectos para la promoción e impulso de acciones de fomento del empleo durante el ejercicio 2018, todo ello de conformidad con las Bases Reguladoras de la convocatoria de las subvenciones en régimen de concurrencia competitiva y en en las siguientes cuantías parciales:

- Transparencia 12.500,00 €
- Centro de Información para el Empleo 6.250,00 €

*Tercero:* Con fecha de 21/12/2018 y 30/01/2019 "GAZTAROA – SARTU KOOPERATIBA ELKARTEA" ha presentado dos escritos mediante los cuales RENUNCIA a la subvención concedida.

*FUNDAMENTOS DE DERECHO*

*En la Sección 3ª, artículo 94º de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas , se establece el régimen de desestimiento y renuncia de la solicitud por parte de los interesados en el procedimiento administrativo y determina que la Administración aceptará de plano el desestimiento o la renuncia y declarará concluso el procedimiento salvo que, se hayan personado en el mismo terceros interesados.*

*A la vista de lo anteriormente expuesto, por el presente:*

*DISPONGO:*

*Artículo 1.-* Aceptar la renuncia presentada por "GAZTAROA – SARTU KOOPERATIBA ELKARTEA" C.I.F.: F48211080 a la subvención de 18.750,00 euros, concedida mediante Acuerdo de la la Junta de Gobierno de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, en sesión ordinaria celebrada con fecha 31 de octubre de 2018.

*Artículo 2.-* Declarar concluso el procedimiento en lo que afecta al Expediente administrativo tramitado al efecto y proceder a su archivo."

En éste momento toma la palabra la Vocal

Gobernu Batzarraren agirietako gordetako paper berezia – Papel reservado para las actas de la sesiones de la Junta de Gobierno

andreak hartu du hitza, eta aipatu du aztertu egin beharko direla GAZTAROA – SARTU KOOPERATIBA ELKARTEAk lehiaketaren adjudikazioari uko egiteagatik sor daitezkeen lege-erantzukizunak eta -ondorioak.

Azaldu dute aipatutako kooperatibak ez diola lehiaketaren adjudikazioari uko egin, AUMk emandako dirulaguntzari baizik. Horren lege-araudia ezberdina da administrazio-prozeduraren ondorioetarako.

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA Gobernu Batzarra arestian adierazi denaren jakinaren gainean geratu da.-"

Sra. Elejabarrieta quien comenta que se deberían analizar las consecuencias y posibles responsabilidades de índole legal que pudieran derivarse por la renuncia formulada a la adjudicación del concurso por parte de "GAZTAROA – SARTU KOOPERATIBA ELKARTEA"

Se comenta que la citada cooperativa no ha renunciado a la adjudicación de un concurso, sino a la concesión de subvención otorgada por AUM, cuya regulación legal es distinta a efectos de procedimiento administrativo.

La Junta de Gobierno de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, quedó debidamente enterada de todo lo anteriormente expuesto.-"

## 5.- AUMKO PRESIDENTZIAREN DEKRETUAREN BERRI EMATEA

"Toki Araubidearen Oinarriei buruzko 7/85 Legearen 22-2ª) artikuluan adierazitakoaren arabera, gobernu-organoen kontrola eta fiskalizazioa Osoko Bilkurari dagokio. Eta lege-testu bereko 46 -e) artikuluan ezarritakoaren arabera, ohiko osoko bilkuretan Udalbatzako gainerako organoen kontrolari buruzko alderdia zehatz-mehatz ezarriko da, eta halaber, organo horrek ebazpen-zatitik sustantibotasun propioa eta bereizlea erakutsi beharko du, betiere, funtzionamenduan eta, hala denean, arauketan, udal-talde guztien parte-hartzea bermatuta, batik bat, galderak eta eskaerak eta mozioak egiteko unean.

Presidente jaunak 2019ko urtarrilaren 30etik 2019ko otsailaren 15era luzatutako Presidentzia Dekretuen berri eman du. Hona hemen Dekretu horien zerrenda:

## 5.- INFORMACIÓN SOBRE DECRETOS DE LA PRESIDENCIA DE AUM

"De conformidad con lo señalado en el art. 22-2ª) de la Ley 7/85, de Bases de Régimen Local, correspondiente al Pleno el control y fiscalización de los órganos de gobierno. Y según establece el art. 46 –e) del mismo texto legal, en los plenos ordinarios se establecerá específicamente una parte dedicada al control de los demás órganos de la Corporación deberá presentar sustantividad propia y diferenciadora de la parte resolutiva, debiéndose garantizar de forma efectiva en su funcionamiento y, en su caso, en su regulación, la participación de todos los grupos municipales en la formulación de ruegos y preguntas y mociones.

Por parte del Sr. Presidente se procede a dar cuenta de los Decretos de Presidencia expedidos de fecha 30 de enero de 2019 al 15 de febrero de 2019, Decretos cuyo resumen es el siguiente:

| ZENBAKIA<br>NÚMERO | DATA<br>FECHA | GAIA<br>ASUNTO |
|---|---|---|
| 2/2019 zk. Dekretua | 2019/01/30 | Onartzea GAZTAROA – SARTU KOOPERATIBA ELKARTEAk (IFK: F48211080) aurkeztutako 18.750,00 |

Gobernu Batzarraren agirietako gordetako paper berezia – Papel reservado para las actas de la sesiones de la Junta de Gobierno

Gobernu Batzarraren agirietako gordetako paper berezia – Papel reservado para las actas de la sesiones de la Junta de Gobierno

| | | |
|---|---|---|
| | | euroko dirulaguntzaren uko egitea. |
| Decreto nº 2/2019 | 02/01/2019 | Aceptar la renuncia presentada por "GAZTAROA – SARTU KOOPERATIBA ELKARTEA" C.I.F.: F48211080 a la subvención de 18.750,00 euros. |
| 3/2019 zk. Dekretua | 2019/02/15 | 2019ko otsailaren 15tik aurrera, kautelaz etetea Arratiako Egoitza-Herri Erakunde Autonomoko zuzendaria-kudeatzailearen lanpostu bat (A-1 sailkapen-taldea) eta mantentze-lanetako ofizialaren lanpostu bat (C-1 taldea) barne-sustapen sistemaren bitartez betetzeko izapidetzen ari diren prozedura..- |
| Decreto nº 3/2019 | 15/02/2019 | Suspender cautelarmente a partir del día 15 de febrero de 2019 el proceso de que se está tramitando para la provisión mediante el sistema de promoción interna de la cobertura de las de una (1) plaza de Director/a-Gerente (Grupo A-1) y de una (1) plaza de Oficial de Mantenimiento (Grupo C-1) de "Arratiako Egoitza H.E.A." |

AUMko Gobernu Batzarraren kideek goian azaldutako guztiaren berri izan dute.-"

Los Vocales de la Junta de Gobierno de AUM quedaron debidamente enterados de todo lo anteriormente expuesto.-"

**6.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

"Gai-zerrendako puntu honetan inork ez du ezer esan.-"

**6º.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

"En éste punto de orden del día no se produce ninguna intervención.-"

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, bi mila eta hemeretziko otsailaren hogeita zazpian goizeko bederatziak eta hogeita hamar minutu diranean, Presidente jaunak batzarra amaitutzat jo du, eta nik, bait. Idazkari-kontuhartzaileak, hori guztia ziurtatu dut.-

Y no habiendo más asuntos de que tratar y siendo las nueve horas y treinta minutos del día veintisiete de febrero de dos mil diecinueve, el Sr. Presidente dió por finalizada la sesión, de lo que yo, el Secretario-Interventor acctal. doy fé.-